

**Ebazpena: R165/2022**

**Espedientea: 20/2014**

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 15ean.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Soffía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– erabaki hau hartu du:

### **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean ZAEA) Arabako Foru Aldundiarekiko (aurrerantzean AFA) aurkeztu duen gatazkari buruzkoa. Erabakiaren helburua da zehaztea ea auzi-jartzaileak eskumenik duen FTSLk lan pertsonalarengatik zenbait langileri 2008ko apiriletik 2012ra egindako atxikipenak ordainarazteko (langile horiek Arabako lantokiari atxikita daude baina zerbitzuak gehienbat lurralde erkidean ematen dituzte). Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da, 20/2014 espediente-zenbakiarekin.

### **I. AURREKARIAK**

**1.-** FTSL zerga-egoitza Araban daukan enpresa bat da, farmazien eskualdaketan bitartekari- eta aholkulari-lanak egiten dituen.

**2.-** FTSLk lurralde erkidean eta foru-lurraldean garatzen du bere jarduera eta, horretarako, egoitza nagusi bat du Araban, bestelako egoitzak Madrilen, Bartzelonan eta Valentzian, eta 26 aholkularitza-ordezkaritza, lurralde nazional osoan banatuta.

**3.-** 2013ko urtarrilaren 9an, zerbitzuak lurralde erkideko egoitza edo ordezkartzetan ematen dituzten langileen 2009tik 2012ra arteko atxikipenak bidaltzeko eskaerak egin zizkion ZAEAk AFari.

**4.-** 2014ko urtarrilaren 7an, AFAk atzera bota zuen eskaera, bere iritziz langileek lurralde erkidean nahiz foru-lurraldean ematen zituztelako zerbitzuak, eta, beraz, atxikipen-lantokiaren arau osagarria aplikatu behar zelako lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena zeini zegokion zehazteko. Horren arabera, langile guztiak Arabako lantokiari atxikita zeudenez, AFarena zen eskumena.

AFAk zerbitzuak foru-lurraldean ematen zirela justifikatzen zuen, enplegatuak hilean behin –zonako kudeatzaileen kasuan– edo urtean behin –ordezkarien kasuan– Gasteizko egoitza nagusira joaten zirelako eragiketen bilakaera aztertzeraz eta jarraibideak jasotzeraz (kudeatzaileak) edo helburuak finkatzeraz, marketin-plana eta estatistikak ezagutzera eta bezeroen gogobetetze-inkestak aztertzeraz (ordezkariak). AFAk geroago zehaztu du ordezkariak ez direla lanerako leku fisikoak, langileak bezeroen egoitzetara joaten baitira zerbitzuak ematera.

Horrez gain, AFAk uste du akats material bat egin zela atxikitzaileak ustez bidegabe sartu duen zenbatekoa zehazteko unean.

Azkenik, 2008ko lehen hiru hiruhilekoak preskribatu direla alegatu zuen AFAk.

**5.-** 2014ko martxoaren 6an, eskumena baliatzeari uzteko errekerimendua egin zuen ZAEAk, eta AFAk zuzendutako akats materiala onartu zuen, baina ordainarazteko eskumena duela berretsi zuen.

**6.-** 2014ko apirilaren 1ean, ZAEAk jakinarazi zuen uko egiten ziola eskumena baliatzeari uzteko errekerimenduari.

7.- 2014ko apirilaren 28an, ZAEAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen. Prozedura arruntaren bidez izapidetu da gatazka hori, eta hasierako alegazioen izapidea egiteko aukera eman zaio GFari eta azken alegazioen izapidea egitekoa alderdi guztiei.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66. Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikuluko horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

*a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.*

*b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.*

*c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.*

## 2.- Aplikatu beharreko arauak

Lan pertsonalaren atxikipenak ordainarazteko eskumena lurraldearen arabera eskumena duen foru-aldundiari dagokio, 7. artikulua jatorrizko testuko – *ratione temporis* aplikagarria baita– irizpide hauen arabera:

*a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.*

*Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, arauak edo zerbitzuak Euskadin egiten direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago.*

## 3.- Arbitraje Batzordearen irizpidea

Arbitraje Batzordeak 20/2022 Ebazpenean adierazi zuen (35/2015 gatazkan eman zuen eta hemen errepikatutzat jotzen da ondorio guztietarako) ezin zaiola indarririk kendu eskumena emateko arau orokorrari (zerbitzuak emateko lekua) arau osagarriaren alde (atxikipen-lantokia) prestazio osagarriari lotutako zerbitzu-ematean babestuta, zerbitzu-emate horiek beste lurraldean hondar-prestazioak direnean (esate baterako, prestakuntza edo birziklatzea, kongresuetara joatea eta bilerak).

Eskuartean daukagun kasuan, egiaztatuta dago ZAEAk erreklamatzeko dituen atxikipenak dituzten enplegatuek lurralde erkidean gauzatzen dutela beraien jarduera nagusia (farmazien salmentan bitartekari-lanak egitea), beste ordezkartzeekin alderatuta, lurralde-eremu eksklusibo eta baztertzailan lan egiten dutela; jarduera gehigarri, osagarri eta prestakuntzakoak besterik ez dituztela egiten Arabako egoitzan eta horiek osagarriak eta hutsalak direla jarduera osoa kontuan hartuta.

#### 4.- Administrazioen arteko kredituaren preskripzioa

Auzitegi Gorenaren jurisprudenzia baketsuak (besteak beste epai hauetan biltzen da: 2015eko abenduaren 15ekoa (ECLI: ES: TS: 2015:5337), 2022ko otsailaren 10ekoa (ECLI: ES: TS: 2022:596), 2020ko abenduaren 3koa (ECLI: ES: TS: 2020:4077), 2021eko urtarrilaren 28koa (ECLI: ES: TS: 2021:372) eta 2020ko maiatzaren 18koa (ECLI: ES: TS: 2020:1010)) adierazten du zerga-kreditu juridikoaz gain badagoela administrazioen arteko zuzenbide publikoko kreditu bat eta, horren arabera, eskumenik ez duen administrazioan bidegabeko diru-sarrera egiten den unean hasten dela kontatzen erreklamatzeko preskripzio-epea eta epe horren preskripzioa ez dela eteten hirugarren batek (zergapekoak) egindako jarduketengatik edo hirugarren hori dela-eta.

Administrazioen arteko kredituaren aurreneko erreklamazioa 2013ko urtarrilaren 9an egin zenez, preskribatuta leudeke errekerimendu hori baino 4 urtetik gora lehenago ordaindutako atxikipenak, hau da, 2008ko lehen hiru hiruhilekoei dagozkienak.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Deklaratzea ZAEAk duela eskumena bitartekaritza-zerbitzuak lurralde erkidean ematen dituzten FTSLko ordezkari eta eskualde-buruen lan pertsonalari dagozkien 2008ko azken hiruhilekoko eta 2009tik 2012. urtera arteko atxikipenak ordainarazteko.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta FTSLri jakinaraztea.